



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2022KO ABUZTUAREN 14AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAKO AKTA

44. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeita biko abuztuaren 14an, goizeko hamarretan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ez ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Ezin etorria: Angel M^a Etxeberria Ibaguren J. (EH BILDU).

Idazkaria: Unai Urkijo Rodriguez, Udal Idazkaria.

1.- HE 8 DANOBAT AREAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

**“LURRALDE ANTOLAKUNTZA, INGURUMENA, LANDA GARAPENA,
OBRAK ETA ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN
IRIZPENA**



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

GAIA: BEHIN BETIKO ONARTZEA “HE 8.- DANOBAT AREAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA”

“AURREKARIAK:

HE 8 DANOBAT area sortu zuen 2007an onartutako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginak (2007/10/02ko GAO). Horren ondoren, hainbat hirigintza tresna onartu dira esparru horretan.

INMOGROUP GRUPO INMOBILIARIO Y PROMOCIÓN URBANA, SLk sustatuta, 2022ko martxoan “HE 8.- DANOBAT AREAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA” dokumentua onartzeko tramitazioa hasi zen eta abiarazi zen ingurumen ebaluazio estrategiko prozedura. Dokumentu horren helburua HE 8.- DANOBAT esparruaren antolamendu xehakaturia aldatzea da.

Alkatearen 2022ko ekainaren 13ko 2022/735 Ebazpenaren bidez, hasierako onarpena jaso zuen aurkeztutako dokumentuak, baldintza batzuekin, eta adierazi zuen ingurumen ebaluazio txosten gabe ezingo zela plana behin betiko onartu. Era berean, erabaki zen informazio publiko tramitea irekitzea eta horretarako iragarkiak argiratu ziren 2022ko ekainaren 27an DV egunkarian eta 2022ko ekainaren 22an GAOan.

2022ko ekainaren 30eko Ebazpenaren bidez Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak formulatu du Ingurumen Txosten Estrategikoa, aurreikusiz plan bereziaren aldaketak ez diola eragingo ingurumenari ondorio kaltegarri esanguratsurik.

Informazio publiko epean ez da alegaziorik jaso. Arloko administrazio hauen txostenak jaso dira: URA AGENTZIArena eta GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BIDE AZPIEGITUREN DEPARTAMENDUarena.

Sustatzaileak behin betiko onarpenerako dokumentua aurkeztu du 2022ko uztailaren 28an. Bulego teknikoak dokumentuaren behin betiko onarpenaren aldeko txostena egin du, aldekoa, baina zehaztaperen batzuekin. Hona hemen zehaztaperenak:

- Etxebizitza kopurua handitzeak dakarren eraikigarritasun hazkunderen komunitateak duen partehartzeari (%15) dagokion zenbatekoa, 17.053,72 euro, ordainduko ditu sustatzaileak.
- Ibilgailuen aparkalekuen estandarra bete ezin izanaren ordeko kalteordaina ordainduko du sustatzaileak, 123/2012 DEKRETUA, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoak ezarritakoarekin bat.
- Ordainketa horiek akordio honen jakinarazpena jasotzen denetik hilabeteko epean egingo dira.
- Planaren exekuzioan arloko administrazioek emandako txostenetan jasotako baldintzak beteko dira: URA AGENTZIA eta Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomiaren Zirkularraren Ebazpena, zeinaren bidez formulatzen baita planari buruzko ingurumen txosten estrategikoa.
- Ezingo da eraikinen lehen erabilera baimenik eman urbanizazio lanak guztiz amaitu arte.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ZUZENBIDE OINARRIAK:

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 103.1 art.aren arabera, hirigintza planen berrikustea ez den edozein aldaketa egiteko beharrezkoa izango da aldaketa soila egitea. 104 art.-aren arabera, planen aldaketarako prozedura, planaren beraren onarpenerako prozedura berbera izango da. Hala, legearen 97 art.-an arautzen da plan bereziak onartzeko prozedura.

Halaber, kontuan izan behar da aldaketa honen tramitazioan 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen.

Txosten teknikoetan adierazitako zehaztapenak kontuan hartuta, behin betiko onarpena horiek betetzeari baldintzatuta emango da. Plan bereziaren behin betiko dokumentuan jasotako aldaketek ez dute funtsezko izaerarik.

Dokumentuak behin betiko onarpena jaso ostean, 2/2006 Legearen 89 art.an eta 46/2020 Dekretuan jasotako tramiteak burutuko dira indarrean sartu dadin.

Lurralde Batzordeak, 2022ko abuztuaren 8an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK:

Imanol Arrizabalaga, Ana Azkoitia, Javier Zubizarreta, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz eta Itziar Joaristi.

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Osoko Bilkurari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Lurralde Batzorde Informatiboak:

IRIZPENA

I.- Behin betiko onartzea ondoko hirigintza antolamendu dokumentua: "HE 8.- DANOBAT AREAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA", adierazitako zehaztapenekin.

II.- Dokumentuaren ale bat Gipuzkoako Foru Aldundiko plangintzaren erregistrora igortzea, argitaratu aurretik, bertan jasotako geratu dadin.

III.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 89.5 artikulua arabera, indarrean sartzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onarpen akordioa eta hirigintza araudia. Halaber, behin betiko onarpenaren iragarkia argitaratuko da lurralde historikoan hedapen handiena duen edo duten egunkarian edo egunkarietan.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ana Azkoitia andreak azaldu du gai hau Lurralde Batzordeetan komentatu dela eta azken finean, honako Plan Bereziaren helburua etxebizitza gehiago eraikitzea dela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak hitza hartu eta honako hau adierazi du:
“Azken finean metro karratu berberetan etxebizitza gehiago eraikiko dira. Lehen ere egin izan ditugu horrelako aldaketak eta gure aldetik ez diogu aparteko arazorik ikusten, beraz, baietz bozkatuko dugu.”

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak HE 8 Danobat arearen Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betikoz onartzea aho batez erabaki du.

2. KREDITU GEHIGARRI BIDEZ KREDITUAK ALDATZEKO AZKOITIKO UDALEKO 4 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEAREN ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN DIKTAMENA

1.- AURREKARIAK

2022urteko Udal honen Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.

Alkate Lehendakariak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduerak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta expediente horren izapideketa aplikagarriak zaizkion legei egokitzen zaiela.

Honez gain, kontu-hartzaileak honako txosten hau egin du Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

TXOSTENA

KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA

KREDITU GEHIGARRIA 4/2022

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- 6/2021 Foru Dekretu-Araua, urriaren 19koa, Gipuzkoako toki entitateek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan 2022an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa (2021eko urriaren 21ean argitaratua)

AZTERTUTAKO TRAMITEA: KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1.1- ENTITATE ZERRENDA:

AZKOITIKO UDALA
SAN JOSE EGOITZA
ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontu onarpenaren espedienteak -5.230.077,37 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Ondorio horretarako, pasa den urtean egiten zen moduan, doiketa adierazgarria egin beharra dago, aurretik onarturiko kreditu aldaketak 2021eko Udaleko eta bere erakunde autonomoen diruzaintzako gerakinarekin finantziatu baita aurretiazko txertaketak egiteko eta beste kreditu gehigarri batzuk finantzatzeko.

Ondoren taula batean zehazten dira gerakinaren finantziazioa.

KREDITU ALDAKETAK	Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2021eko gerakina
Kreditu txertaketa 1/2022	1.186.400,42
Kreditu txertaketa 2/2022	1.671.308,15
Kreditu gehigarria 1/2022 udala	205.000,00
Kreditu gehigarria 1/2022 Elkargune	116.500,00
Kreditu gehigarria 1/2022 San Jose Egoitza	91.000,00
Kreditu txertaketa 1/2022 Elkargune	67.895,11
Kreditu gehigarria 2/2022 Udala	861.500,00
Kreditu txertaketa 3/2022 Udala	196.536,27
Kreditu gehigarria 3/2022 Udala	515.000,00
Kreditu gehigarria 4/2022 Udala	470.000,00
GUZTIRA	5.381.139,95

Honegatik doiketa 5.381.139,95 €koa da eta ondorioz **espedienteak -318.937,42 euroko defizita** du. Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetako sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetako gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta

6/2021 Foru dekretu arauak ezohiko izaeraz 2022rako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz aurrekontuaren egonkortasunaren helbururik ez da bete behar 2022an.

Hala ere foru dekretu arau honen 1.4 atalak dio hurrengo artikuluan araututako defizit helburuak gaindituz gero, toki entitateak behartuta egongo direla plan ekonomiko finantzario bat egitea eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Aurrekontu egonkortasuneko helburuak 2022rako zehazterakoan Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren %40. Ondorioz Azkoitiko Udalarentzat defizit globaleko helburua hauxe da:
Azkoitiko Udalaren kasuan 328.825 € da defizit muga, 2.2 artikulua arabera.

Hori dela eta, Udalaren Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak, kreditu gehigarriak 4/2022, 6/2021 foru dekretu arauak ezartzen duen defizit helburuaren azpitik dagoenez, Azkoitiko Udala ez da behartuta egongo plan ekonomiko finantzario



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

bat egitea. Hala ere, plan ekonomiko finantzarioa egiteko betebeharra dagoen ala ez jakiteko, defizit helburua likidazioaren unean aztertuko da.

Finantzen iraunkortasuna

2022ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 5.421.393,86€, 2021ean likidatutako sarrera arrunten (15.546.129,73 €) % 34,87 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2021eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2022rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2022rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

6/2021 Foru dekretu arauak 2022rako arau fiskalak eten ditu. Ondorioz zor publikoaren helbururik ez da bete behar 2022an.

Hala ere esan behar da 2020ko helburua %70a izan zela eta Azkoitiko Udala eta bere erakunde autonomoen kasuan, 2022an, zor publikoaren portzentajea dezente azpitik dagoela, % 34,87 a.

Gastuaren araua

	2022	2021 LIKIDAZIOA
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	21.196.296,37	14.447.762,24
Zorraren interesak:	26.933,78	26.820,47
SEC doikuntzak:		0,00
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	941.474,94	929.778,36
Gastu konputagarria:	20.227.887,65	13.491.163,41
Gastu konputagarriaren hazkundera	49,93%	

Gastu arauaren azterketa egiterakoan, simulazio bat besterik ez da egin, 2020ko erreferentziak kontuan hartuz. 2022rako ez dago ez hazkunderaren erreferentziatarik, ezta gastu konputagarria kalkulatu beharrik. Gastu araua etenda dago baita ere 6/2021 foru Dekretu arauaren arabera.

1.3.- ONDORIOAK

6/2021 foru dekretu arauaren ondorioz etenda gelditu dira txostenean aztertu ditudan hiru arau fiskalak.

Esan behar da egonkortasun helburuari dagokionez, Kreditu aldaketa honek, behin gerakinaren doiketa eginda, defizit egoera helarazten duela -318.937,42 €takoa, baina defizit kopuru hau Gipuzkoako Foru Aldundiak Azkoitiko Udalari lagatzen dion



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

defizit mugaren azpitik dagoela, 328.825 € baita Azkoitiari dagokiona, 2.2 artikulua araberan.

Une batean Udalak defizit helburua gaituz gero, behartuta egongo da plan ekonomiko finantzario bat egin eta onartzera, plan hori kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izan dadin, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik izan gabe.

Honez gain 6/2021 Foru dekretu arauaren 1.2 artikulua araberan diruzaintzako gerakina erabili daiteke kreditu aldaketak finantzatzeko, arau fiskalak eteteak berekin bait dakar, eten egingo dela sarrera handiagoak eta diruzaintzako gerakina zorra murriztera bideratzeko eskakizuna.

Azkoitian, 2022ko uztailak 29an
Kontuhartzaileak

Beraz, antolakuntza batzordeak ondorengo irizpena proposatzen dio Udalbatzari.

IRIZPENA

LEHENENGO: Proposamenaren zerrendatzen diren Azkoitiko Udalaren gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarria bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, 470.000,00 € zenbatekoa.

ESKU2eff85da-5ea0-4cad-80b8-79b857c6b3e3



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

UDALA				
KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA 4/2022 PROPUESTA DE FINANCIACIÓN DE CRÉDITOS ADICIONALES 4/2022				
SARREREN KONZEP EDOTA GASTUEN PARTIDA	BALIA BIDEEN KONZEP TUA	EGUNEKO KREDITUAK	SARRERA HALNDIAGO/GAST BAJAK	BEHINBEITIKO KREDITUAK
CONCEPTO DE INGRESOS O PARTIDA DE GASTOS	CONCEPTO DEL RECURSO	CREDITOS ACTUALES	MAYORES INGRESOS Y O BAJAS EN GASTOS	CREDITO DEFINITIVO
2 1000,870,000,00,01	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretako/Remanente de Tesorería para gastos generales	4.439.208,57	470.000,00	4.909.208,57
KAP 8				
	SARRERA HALNDIAGOAK GLUZTIRA/TOTAL MAYORES INGRESOS	4.439.208,57	470.000,00	4.909.208,57
	GLUZTIRA	4.439.208,57	470.000,00	4.909.208,57
GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA				
PROPUESTA DE REALIZACIÓN DE GASTOS Y LA CORRESPONDIENTE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS				
ALFREKONTUO PARTIDA	IZENA	EGUNEKO KREDITUAK	GEHIGUNTZAK	GLUZTIRA
PARTIDA PRESUPUESTARIA	DENOMINACIÓN	CREDITOS ACTUALES	ALUMENTOS	TOTAL
1 4000,622,230,00,02	Eguneko zentrua, lokala erostea	0,00	470.000,00	470.000,00
GLUZTIRA KAP 6		0,00	470.000,00	470.000,00
	GLUZTIRA	0,00	470.000,00	470.000,00

BIGARRENA: Espediente onartzeko eskumena bilkura osoari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak. Gainera espedientearen kopia bat bidali beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, azaldutako Foru Arauaren 15.3 artikulua adierazten duen tramitazio-fasean.

Antolakuntza Batzordeak, 2022ko abuztuaren 8an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vazquez, Janire Igoa eta Itziar Joaristi.

KONTRAKO BOTOAK: Jose Joakin Etxaniz.”

Ana Azkoitia andreak aditzera eman du lan zerrendaren puntu hau Osoko Bilkurara ekarri egin dela epeak aurreratzen joateko. Horrela, Eguneko Zentroaren erosketa ahalik eta lasterren burutuko da.

Jose Joakin Etxaniz jaunak hitza hartu du eta honela zehaztu du: *”Herriaren lorpena izan dela diozue, baina herriak ez du hau eskatzen, “kontsentsuz, egoiliarrentzat eta herritarrentzat onena izango litzatekeen bidea jorratzeko” eskatu digute, eta guk, oraintxe arte bezala, beraien parte hartzearekin gehituko genioke. Lan asko egin dugu eta erabakiak hartzeko unera iristen ari gara, baina puntu honetara iritsi ondoren, ez genuke nahi Udal Gobernuak inposatutakoa izaterik, beste taldeekin ez bazarete adostasunera iristen, gutxienez urteetan, gai honen bueltan, lanean dirauten taldeen oniritzia lortu beharko zenuketela uste dugu. Noren beldur zarete? Egin duzuen lan horren ondorioetan ez duzue konfiantzarik? Bat-batean zergatik honelako presa? Zergatik ez dituzue elkarrekin beste aukerak aztertu nahi?*

Urte asko daramatzagu esaten, honelako erabaki potoloak, herritarrei kontsultatu gabe ezin direla hartu. Erabaki honek herritar askoren ongizatean eragin handia izan dezake hurrengo 50 urtetan, beraz, benetan ezin dugula beste aukerarik aztertu?

Zeuek, beste inoren iritzia kontutan hartu gabe, Aldundiarekin sinatu duzuen protokoloa aurrera eramango duzuela diozue. ASMATU enpresari, egoitza irisgarriagoa izateko, igogailu bat eraikitzeak aukera ezberdinak aztertzeak diru bat gastatu genuen. Hiru aukera ezberdin aurkeztu zizkiguten eta beraien hitzetan 2. aukera zen egokiena eta bat-batean, beste argibiderik gabe 3. aukeratu duzuela ohartu gara, igogailutik irten ondoren, Azkaratera doan bezalako aldapa gogorra duena, eta oraindik inork ez digu horren zergatia aurkeztu.

Ez dugu gehiago luzatu nahi, aurretik ere bai batzorde, eta baita komunikabideetan ere garbi utzi dugu gure iritzia. Herri-lab ekimenarekin parte hartzea sustatzen ari garen une berean, Udal Gobernutik hartutako erabakia inposatzera zoaztela ezin dugu sinetsi.

Beraz, oraindik ere astiarekin gabiltzanez, hasieratik gauzak behar den bezala egitea eskatu nahi genizueke, denok batera, bai senide eta egoiliar, bertako langileen iritzia kontutan hartuz, udaleko beste alderdiekin batera, hurrengo 50 urteetarako erabaki onena izango den zalantza denak baztertu eta aukera egokiena aukeratzeko. Zeuek diozuen bezala hainbeste lan egin baduzue, eta bai Udaletxean eta baita Aldundian ere dituzuen tekniko denen laguntza izan baduzue, ez zenukete besteekin partekatzeko beldurrik izan behar. Protokolo horretan idatzitakoak izan behar luke denontzat aukerarik onena, baina badirudi 2023ko hauteskundeak buruan dituzuela dagoeneko,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

beste arrazoirik ez baitiot topatzen, irisgarritasun gomendioak alde batera utzi, teknikoki gehien baloratu ziguten igogailua baztertu eta esan bezala Azkarateko aldaparen parekoa duena aukeratu duzuenean. Eta bukatzeko, udaleko beste taldeekin ez bada, herritarren iritzia kontutan hartu ezazue behintzat, horrelako erabaki batek, urte askotan, herritar askori eragingo baitio. Hartu ezazue denekin hitz egiteko behar den denbora, hauteskunde eta botoak alde batera utziz. Hainbeste urtetan lanean dihardugun, beste alderdi eta herri ekimen bera ere prest egongo liratekeela ez dugu inongo zalantzarik, baina horrelako erabaki potoloak horrela hartzearen aurka azaldu gara beti, eta nahiz eta pena handiz, bide hau honela jorratu izanak, ezetz bozkatzera garamatza besterik gabe.”

Iraitz Otaño jaunak hitza hartu du eta EH Bilduren aldeko botoa iragarri du. Dena den, adierazi du gai hau ez dela landu modu aproposalan eta horregatik argitu du ezinbestekoa dela herritarren partaidetza eta iritzia bermatzea.

Bestalde, komentatu du ez zaiola aiposatu iruditzen igande batean Osoko Bilkurak egitea eta are gutxiago abuztuaren 14an.

Alkate Jk. hitza hartu du eta Jose Joakin Etxaniz eta Iraitz Otaño jaunei erantzun die.

Lehenik eta behin, Jose Joakin Etxaniz jaunari komentatu dio hauteskundeak ez dutela zer ikusirik Eguneko Zentroaren erosketarekin.

Bigarrenik, Iraitz Otaño jaunari gogorarazi dio Osoko Bilkuraren data eta ordua talde politiko guztiokin adostu egin zela.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga eta Janire Igoa Merino.

Kontrako botoak: Jose Joakin Etxaniz Peña.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beraz, Udalbatza Osoak kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko Azkoitiko udaleko 4 zenbakidun espedientea hasieraz onartzea gehiengoz erabaki du.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, goizeko hamarrak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

ALKATEA

IDAZKARIAK

**Akta honen osagarria izango da, berarekin batera elektronikoki sinatzen den audioa.*

IDAZKARITZA - Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 - idadkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA - HERRIKO ENPARANTZA Z/G - 20720 AZKOITIA

12



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU2eff85da-5ea0-4cad-80b8-79b857c6b3e3**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022PLEN0010-akta/acta (AZKOITIKO UDALA)